

*KONTU KONTARI*

**IRISARRIKO KABALKADA ETA TOBERA.  
BERRITZEAREN INDARRA**

Irisarriko kabalkada eta tobera iragartzen zituen afixa nire eskuetara iritsi zela eta, uztailaren 8an, igandearekin, Nafarroa Behereko aipaturiko herrira hurbildu nintzen. Goizeko 10,30etan meza gogoangarria egin zuten herriko elizan eta arratsaldeko 3,30etatik 5,45etara kabalkada eta tobera zoragariak, urte luzetan oroituko diren horietakoak. Irisartarrek, berriaz ere, 1937an egin zuten tobera historiko eder hartan egin zuten bezalaxe, ederki erakutsi zuten kabalkadak eta toberak prestatzen aditu handiak direla.

**1. Kabalkadaren eta toberaren nondik norakoak**

Hasteko esan dezagun kabalkada eta tobera ez direla gauza bera, baina hori bai, aunitzetan elkarrekin burutzen dituztela. Kabalkada desfile modukoa da eta hasieran jaka eta txapel gorriaz jantzitako zaldizkoak joaten dira, hauetako lehen biek banderak eramanez. Normalean euskal ikurrina eta nafar bandera edota arrano beltza izaten dira; dena den, aunitzetan herrieta-ko banderak ere eramaten dituzte. Zaldizkoen gibeletik gaine-  
rakoak joaten dira: makilariak, zapurrak, bolantak, ziganteak,

herriko jaun-andereak... eta bukaera aldean etengabeen bihurrikeriak eta zozokeriak egiten aritzen diren zirtzilak.

Kabalkadak maiz ikus daitezke Nafarroa Behereko eta Lapurdiko eskualdeetan. Inaute garaian behenafarrek egiten dituzten Libertimendia izeneko ekitaldietan edota urtero Baigorriin egiten den Nafarroaren Egunean ohikoak izaten dira. Pena da, baina azken horretan badira bizpahiru urte kabalkadak zaldirik gabe egiten dituztela. Zuzendu beharreko akatsa delakoan nago. Bunuzen, Uharte Garazin, Donibane Garazin, Lekornen, Itsasun, Lasan... ere kabalkada ederrak egin izan dituzte. Garai bateko kabalkadetan antzerki satiriko modukoak egiten zituzten, gaur berriz, horrelakorik ez da egiten.

Toberak, berriz, oso bestelakoak ditugu. Antzina gazteek antolatzen zituzten herrian izandako gertakari bitxi baten kariatara, eta beraietan kritika, salaketa, umorea, kantuak eta dantzak uztartzen zituzten. Gaiak ez ohikoak edo xebreak izaten ziren edota garaiko moralaren aurkakoak: alargun bat berriz ezkontzea, ezkontideen infidelitatea, adineko gizon bat neskatxa gazte batekin ezkontzea... eta abar. Antzeppen satiriko horiek oso zabaldua egon ziren Europa osoan eta zenbait idazlek zigor kolektibotzat hartu izan dute. Euskal Herriko luze zabalean ere horrelakoak izan genituen: xaribaiak, galarrotsak, karrusak, astolasterrak, xuriketak, kabalkadak, toberak... Ikusten dugunez, Euskal Herrian baditugu kabalkada eta toberarekin senideturiko bestelako antzeppenak, horien artean toberak edo tobera-mustrak –horrela ere deitzen baitzaie– ospetsuena-takoak izan badira ere.

Badirudi tobera izena latinezko *tubella* hitzetik datorrela, horrela dio, bederen, Manuel Lekuonak 1978. urtean plazaratu zuen *Aozko literatura* izeneko liburu mamitsuan. Tubella horiek burdinoletoako arragoan erabiltzen omen ziren, eta bertatik sortzen omen zen burdina goritzeko beharrezkoa zen airea. Gazteek tubella edo tutu horiek baliatzen zituzten tronpetatxo

gisa ezteietan, parrandetan edota horrelako antzeppen satiriko-tan. Hortik omen dator tobera hitza.

Toberak, salaketa plazaratzeko estakurua izateaz gain, besta ederra egiteko aitzakia ere baziren. Antzerki satiriko horretan alegiazko auzia antzezten zuten non honako pertsonaiak edo sujetak agertzen ziren: jujea edo epailea, uxerra edo fiskala, abokatak, jendarmak, hobendunak eta lekukoak. Toberak has-teko kabalkada ederra egiten zuten, orga eder batean jujea eta abokatak eramaten zituztelarik. Arestian aipaturiko pertsonaiez gain, bi koblakari edo bertsolarik hartzen zuten parte, horieta-ko batek hobendunaren alde eginez eta besteak hobenduna-ren aurka. Tarteka, kabalkadan ibilitako guztiek jauziak dantzaten zituzten, zirtzilek, bitartean, etengabeko zozokeriak burutzen zituzten. Amaiera aldean azken kantu bat, kabalkada eta dantza-jauziak bertara hurbildutako herritar guztientzat.

Hauxe zen tobera tradizionala egiteko modua. 1937an iri-sartarrek sekulako tobera antolatu zuten, behenafarren oroitzapen kolektiboan atxikirik gaur arte indarrez iraun duena. Badi-rudi hau izan zela jokatu zen azken tobera-munstra. 1939-1945eko gerla ondoren gizartea arrunt aldatua zen eta kritika eta salaketa haiek ez ziren, jadanik, ongi ikusiak. Hori dela eta, 1945. urtean toberak galarazi zituzten. Beraz, garbi esan deza-kegu Irisarrik 1937an jokatu zuen tobera ospetsu hura izan ze-la molde zaharrari loturiko azkena.

Europa osoan antzeko zerbait gertatu zen, antzerki molde zaharrak baztertu zituzten eta antzerki eraberrituari bideak za-baldu zizkieten, baita Euskal Herrian ere. Eta horrela, 1946tik aitzina kabalkada eta tobera eraberrituak jokatu zituzten Baigorri-n, Luhuson, Makean... eta abar. Gaia asmatua zen, alegiazkoa, bai-na gainerako guztia: dantzak, jokoak, sujetak eta abar, berdin-berdinak. 1970az geroztik, eta abertzaleen eskutik, tobera ira-kurketa politiko berri bat proposatu zuten, tokiko ordena zalan-tzan jartzeko (Baigorri 1976an, Eiheralarren 1988an, Amikuzen

1991n, besteak beste). Ospetsuak izan ziren Daniel Landartek idatzitako *Panpale beti xut* (1979), Pantzo Irigarairen *Pontzio gautxori* (1991) eta *Otto Kristobal* (1994). Lekornen 1996an bizi-ki kabalkada-tobera ederrak plazaratu zituzten eta Itsasun, besta kari, aunitzetan egin dituzte. 2007an azkena.

Beraz, 1970. urtetik tobera etengabeko berritze prozesuan sarturik dagoen antzerki mota daukagu, arrakasta handia erdiesten ari dena. Arrakastaren gakoia berritze horretan, gizarte modernoko arazoetara hurbiltzeko egindako ahaleginetan bilatu beharko genuke. Tradizioa eta modernitatea maisukiro uz-tartzen jakin dute eta horrek sendotu, indartu eta zabaltzeko aukera eman dio; horretaz gain, geroari begira, bide eta posibilitate handiak zabaldu dizkio.

## 2. 1937ko Irisarriko tobera tradizionala

Jean-Michel Guicher ikerlariak dioenez Irisarrik ospe handia zuen kabalkadak eta toberak antolatzen, denbora gutxi barne tobera franko jokatu baitzituen: 1883an, 1914an, 1921ean eta 1928an. Dirudienez, tobera-munstra horiek entzutetsuak izan ziren eta horregatik 1937an, azken tobera tradizionala antolatu zuelarik, jende oldea hurbildu zen Nafarroa beheko herrira. Orduko kronikek kontatzen digutenez 3000 pertsona inguru hurbildu omen ziren Irisarriko plazak eta karririk betez.

Tobera herriko plazan jokatu zuten eta 200 bat gizonek parte hartu omen zuten, tobera tradizionalan emakumeek ezin baitzuten parte hartu. Tobera hartan azaldu ziren emakume guztiak emakumez jantzitako gizonak izan ziren. Eta gaur bitxia iruditzen bazaigu ere, tobera egin ahal izateko herriko erretoreari baimena erosi behar izan zioten.

Kabalkada Zelai auzoan hasi zen eta hortik plazara abiatu zen. Karroza batean jujea eta abokatak zihoazen eta bigarren orga batean koblakariak. Jakin badakigu 1928ko toberan koblakariak Eiheralarreko Larramendi eta Luhusoko Larralde izan zirela,

eta 1937koan berriki zendua zen Larramendiren semea eta Larralde. Henri Haran irisartarrak 89 urte ditu egun, eta azken tobera hura jokatu zenean 14 urte zituen. Muttikoa zenez, ez zioten utzi parte hartzen baina, hala eta guztiz ere, gogoan du toberako gaietako bat, emaztea egurtzen zuen gizon baten ingurukoa zela.

Ematen duenez, herriko plaza jendez mukurua egon zen eta horietako asko bertako zuhaitzetara igo omen zen kabalkada-toberak hobeto ikusi ahal izateko. Jorratutako gaiak eztabaida handia piztu omen zuten baita bertara hurbildu zirenen arteko liskarrak eta kalapitak ere. Azkenean, ukabilkadaka bukatu omen zuten.



*1937ko tobera Irisarrin. Dantzariak plazara sartzen.*

### **3. 2012ko Irisarriko tobera modernoa**

Tobera hau Jean-Michel Nobliak idatzi eta zuzendu du, horretaz gain, bera izan da arduradun nagusia. Haren inguruan lan-talde zabal bat aritu da urte betez gainerako atal guztiak antolatzen. Aipa genitzake dantza maisu-maistrak izan diren Laurent Hariñordoki eta Kristinne Urruti, kantu arduradun izan den Jean Paul Hiriart, eta dantza doinu berriak eta azken kanta prestatu dituen Laura Bide.

Bi tobera-munstra izan dira. Lehena uztailaren 8an, igandea-ekin, eta bigarrena uztailaren 14an, larunbatarekin. Lehen saioan 2000 ikusle inguratu ziren eta bigarrenean beste hainbeste. Nik lehena ikusi nuenez gero, horri dagokion kontaktuzuna eginen dizuet jarraian.


Meza goizeko 10,30etan izan zen. Herriko eliza bete-betea zegoen eta kabalkadakoak barnera sartzean, apezak hasiera eman zion. Irisartarrak bestarako gogo onez beterik zeudela nabaria zen. Hango giroa! Hango kantuak! Irisarri prest zegoen egun gogoangarri bat iragaiteko.

Arratsaldeko kabalkada-tobera 3,30etan hasi zen. Dena den, esan beharra dago ordu 2,30etatik aitzina jendea jarrita zegoela ekitaldirako prest zeuzkaten zurezko harmailetan. 3,30etan kabalkada toberaren eremura sartu zen. Osora 150 bat lagun ziren. Kabalkadaren buruan zaldizkoak zetozen, lehenetako batek euskal ikurrina zeraman eta aldamenekoak, berriz, arrano beltz ederra. Horien gibeletik makilari bat, bolantak, zapurrak, zirtzilak, herriko jaun-andereak eta ziganteak. Ondoren zalgurdi eder batean jujea, uxerra eta abokata jaun-andereak. Horren segidan zirtzilez beteriko traktore bat. Traktoreko muturrean ikurrin handi bat zeramaten eta gainean etzanik, emakume-panpin handi bat, biluzik eta bular handitakoa. Atzetik eta lasterka, jendarmak zirtzilak egurtzen eta entzun-ikusleen barre algarak sortarazten.

Jujea eta gainerako epaileak oholtza gaineko jarlekuetan eseri ziren eta orduan jujeak toberan epaitu behar zituzten gaien berri eman zituen: 1.- Herriko Etxeak 7 Ha lur erosiak eta prestatuak ditu lantegiak altxatzeko. Bateragarria ote da Irisarriko lanbide nagusia den laborantzarekin? Ez al du gizarte berri bat sortuko? Ez ote da euskararen eta euskal kulturaren kalterako izanen? eta 2.- Zer egin euskararen erabilera eta euskal kultura bera herrian indartzeko?

Segidan eta usadioari jarraiki 100 bat dantzarik oholtzaren aitzineko zabaldua bete zuten musikaren arabera dantzatu. Gilen Hiribarren eta Txomin Elozegi bertsolariek jarraitu zuten gero toberaren nondik norakoen berri emanez.

Epaiketa hasterakoan *Prosperité* izeneko jaun laboraria (*Prosper* laguntzat) oholtzara igo zen 7 Ha horietan egin behar zituzten lantegiek ekar zitzaizkiren arriskuez kexu. Honen azalpen luze eta umoretsuaren ondoren dantzariak sartu ziren, berriz ere, *Antxoriz* eta *Lapurtar motxak* dantzatzeko. Gero sartu ziren bolantek (osora 55 bikote) *Grabo* eta *Ainhoarrak* izeneko dantzak burutu zituzten bertan ginen guztien gozamenerako.



2012ko toberaren afixa



Zaldizkoak

Ondoren, Jakes Ondarea izeneko mostatxa handiko gizon dotorea igo zen oholtzara eta bere testigantza azaldu zuen. 7 Ha horietan egin nahi zituzten lantegien kontra aritu zen luzaz, irisartarren bizimodua, hizkuntza eta kultura aldatuko zituztela-koan. Berarekin batera Debalde andere abokata hitz-motela eraman zuen. Neska txolin honek barre handiak sortu zituen ikusleen artean.

Jakes Ondarea eta Debalde abokata oholtzatik jaisterakoan, guztiz desolaturik zegoen emakume gazte bat igo zen epaitegi-  
ra eta arrangurez beterik Irisarriko ostatueta ez zela euskal  
kanturik entzuten, herriko plazan jauziak dantzatu beharrean  
gazteek country dantzatzen zutela, herrian gaztetxerik ez ze-  
goela eta irisartar gazteek eskubaloia besterik ez zutela buruan  
salatu zuten.

Hitzak hitz, jujearen eta uxerraren arteko giroa gaiztotzen  
ari zen. Jujek, behin eta berriro, esan zion uxerrari horrelako  
azalpenekin jarraituz gero lepoa bihurrituko ziola. Kalapitak  
eragozteko dantzariak berriz atera ziren eta oraingoan *Kadri-  
lak*, *Euskaldunak* eta *Sorginak* eta *Abuntza* famatuak eskaini  
zizkiguten. Hauek erretiratzean, bertsolariak, berriz ere. Gilen  
Iribarren gazteak ederki laburbildu zuen irisartarren gogoan ber-  
tso batean horrelakoa esanez: *Ez da galtzen euskara / ez eta  
kultura/ urte guziz egiten bada / kabalkada*.

Tentsioa baretu ondoren jujeak hartutako deliberoak aditze-  
ra eman zituen:

- 1.- Tobera osoan zehar etengabeko zirikan eta pitokeriatan  
ibilitako zirtzilak urtero inauteria antolatzen eta Zapan-  
tzarren epaiketa egitera kondenatu zituen.
- 2.- Lantegi eremurako atxikitako 7 Ha horietan, erdia labo-  
rantzaren zerbitzurako lantegiak egiteko eta beste erdia  
herriko gazteendako etxe merkeak egiteko izan behar  
zirela erabaki zuen.
- 3.- Euskal dantza talde bat sortzea agindu zuen, horrelako  
euskal besta ederrak gehiagotan antolatu ahal izateko  
eta country giro horrekin behin betiko amaitzeko.
- 4.- Eta herriko egiturak sendotzeko mediku ganbera bat,  
euskal elkarte bat, ostatu bat plaza kantoian eta larunbat  
eta igandeetan oinezkoendako gunerik itxi bat ahalbidera-  
tzea gomendatu zuen.



5.- Eta bukatzeko begitan zuen uxerra atxilotzeko eta zulo batera botatzeko agindu eman zien bertan ziren jendarme.



*2012ko tobera. Parte hartzaile guztien argazkia*

Jendarmak berehala ahalegindu ziren jujearen agindua betetzen baina uxerra espantuka eta korrika jaitsi zen oholtzatik. Jendarmak hari segika.

Ondoren dantzari guztiek oholtza aitzineko zabaldia bete zuten kontradantza berri zenbait eskaintzeko. Koblakariak bina bertsoz agurtu ziren eta amaitzeko bi emaztekik kabalkada eta toberan parte hartutako guztiak edota emandako laguntzak oroitarazi zituzten. Esku sarta handiak entzun ziren.

Gero amaierako kabalkada izan zen. Partaide guztiek behin eta berriro dantzatzu bi sartze-irtete egin zituzten toberako ere-



*Zapurrak*



*Bolantak*

muan ikusleen esker ona jasoz, eta gero zuzenean herriko plazarantz abiatu ziren. Arratsaldeko 5,45ak ziren. Plazan Adartza Taldeak jauziak eman zituen irisartar eta bisitarientzat. Gero gerokoak, ostatu giroa, euskal kantuak nonahi, dantzaldia, solasak... gaueko ordu tikiak arte.

#### **4. Irisarriko azken toberari buruzko gogoeta**

1937ko tobera eta kabalkadatik 75 urte igaro diren arren, irisartarrek ederki erakutsi zuten horrelakoetan maisu izaten segitzen dutela. 700 biztanle inguruko herri tiki batek horrelako kultur ekitaldia antolatzeak asko esaten du bertako biztanleen kemenaz.

Auzolana da, zalantzarik gabe, arrakasta honen arrazoietako bat, eta bigarrena tobera garai berrietara egokitzen eta eguneratzen jakitea. Berritze hau izan da nolabait, 2012ko kabalkada

-toberak Irisarrin erdietsi duen arrakastaren giltza. Xiur naiz Iri-sarriko hau eta gero gehiago etorriko direla. Orain lekukoa Itsasu herriari pasatu diote agorrilaren 19an, besta kari, eginen duten kabalkada-toberarako. Itsasuarrek frankotan erakutsi dute beraiek ere aditu handiak direla horrelako ekitalditan, eta agorrilaren 19an hau garbi azalduko digutelakoan nago.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*